

BASKEPENSIONES BGAE INDIVIDUALAREN ETA VITAL PENTSIONA BGAE ZAHARREKO AURREIKUSPEN PLAN BERMATU INTEGRATUEN INBERTSIO-PRINTZIOEN ADIERAZPENA

VITAL PENTSIONA BGAEren Inbertsio-Printzipioen Adierazpen hau (IPA) bi atal desberdinetan egituratuko da. Lehen atalean (A) Erakundean integraturiko aurreikuspen plan guztien irizpide orokorrak jasoko dira, inbertsio-politikari, inbertsioko GEI politikari, inbertsiorako egokiak diren aktiboen mugari, inbertsioekin loturiko arriskuen definizioari eta arrisku horien kudeaketa neurtzeko eta kontrolatzeko metodoei dagokienean.

Bigarren atalean (B), berriz, kudeaketa estrategiari, arrisku globalaren profilaren zehaztapenari eta errentagarritasun helburuari ekingo diegu, hori guztia banan-banan, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALEAN integraturiko Vital Pentsioa BGAE zaharreko aurreikuspen plan bermatu bakoitzerako.

A. ERAKUNDEAREN INBERTSIO-PRINTZIOEN IRIZPIDE OROKORRAK.

A.1 Inbertsio-politika

Erakundean integraturiko planek errenta finkoko eta errenta aldakorreko aktiboetan inbertituko dute batik bat.

Aurreko inbertsioak IKEen bidez egin ahal izango dira guztizkoaren % 25 bitarte, indarrean dagoen aplikatu beharreko araudiak haietarako ezarritako zenbatekoen eta ezaugarrien arabera.

Errenta aldakorreko aktiboetan egiten den inbertsioa plan bakoitzaren ondarearen ehuneko jakin batera mugatua egongo da, eta urtero finkatuko da ehuneko hori.

Errenta finkoko aktiboetan, aktibo monetarioetan, kreditu erakundeen gordailuetan eta antzeko beste aktibo batzuetan egiten den inbertsioak ez du, hala badagokio, adierazpen honetan eta aplikatu beharreko araudian zehaztutakoa beste mugarik izango.

Aipaturiko horiek ez bezalako beste aktibo batzuetan egiten den inbertsioak aplikatu beharreko legezko mugak errespetatuko ditu, eta oro har, ez du gaindituko Erakundean integraturiko plan bakoitzaren ondarearen % 10.

Era berean, euroa ez diren dibisetako aktiboetan egiten den inbertsioaren ehunekoa urtero finkatuko da plan bakoitzerako.

A.2. GEI politika inbertsioan

BASKEPENSIONES BGAE INDIVIDUALAK dio gizarte-, ingurumen- eta gobernu korporatiboaren arloko jardunbide iraunkorrak erabiltzeak aukera ematen diela erakundeei aurrera egiteko, irauteko eta epe luzera errendimenduak maximizatzeko. Horregatik, interesgarria da BGAEk jardunbide horiek kontuan hartzea inbertsioak gauzatzeko orduan, bere bazkideentzako emaitzen kalitate handiagoa lortzeko.

BGAEn inbertsio arduratsuko irizpideak, oro har onartutako nazioarteko arau, hitzarmen eta itunetan oinarritzen dira, batez ere Nazio Batuen Erakundearen esparruan. Testuinguru horretan, BGAEn nahia da bere inbertsioaren xede diren erakundeek honako printzipio hauek betetzea eta sustatzea beren jarduera-esparruetan:

- Giza Eskubideak errespetatzea
- Ingurumena zaintzea
- Gobernu onaren politikak egitea
- Jardunbide egokiak zerga-arloan

Inbertsioak egiteko, jaulkitzailearen ebaluazioa egingo du, kontuan izanik gizarte erantzukizunaren ikuspegitik eginiko inbertsioari buruzko informazio-hornitzaileetatik eratorritako edo munduko erreferentziazko funts handiek adostutako kanpo uzteak, kanpo uztearen arrazoiak argitaratzen dituztenei eta esparru horretan ibilbide luzea dutenei bereziki erreparatuz, eta betiere kontuan hartuz BGAEn irizpideek erreferentziazko funts horien irizpideekin duten antzekotasuna edo bat-etortzea.

Politika hori zuzeneko inbertsioaren diru-zorroari (errenta finkoa eta errenta aldakorra) aplikatuko zaio eta, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen bidezko inbertsioan, BGAEk modu kualitatiboan sartuko du gizartearen aurrean erantzulea den inbertsioaren erakunde kudeatzailearen politikari buruzko informazioa inbertsioa aztertzekeo prozesuan.

Printzipio horiek betetzen diren ebaluatzeko, BGAek aldiro-aldiro aztertuko du inbertsio-zorroek lehen aipatutako irizpideak eta printzipioak betetzen dituzten ala ez.

A.3 Inbertsiorako egokiak diren aktiboak

ELGAko herrialdeetako erakundeek jaulkitako errenta finko publiko edo/eta pribatuko tituluak osatuko dituzte Errenta Finkoko zorroak, “investment grade” ratinga edo Espainiak une bakoitzean duena (hau apalagoa bada), baino txikiagoa ez den ratingarekin, eta plan bakoitzaren konpromisoen izaerarekin eta Errenta Finkoko merkatuen egoerarekin koherentea izango den iraupenarekin. Nolanahi ere, dagokion aktiboa eskuratu ondoren etorritako rating aldaketek ez dute hura saltzeko beharra ezinbestean ekarriko, merkatuko baldintzei erreparatuta komeni denean izan ezik.

Modu gehigarrian, xedatutakotik beherako rating tituluak eskuratu ahal izango dira, baldin eta kaudimen-baldintzei buruzko araudi espezifikoa betetzen bada, eta, betiere, indarrean dagoen legediak xedatutako mugekin bat etorrira, eta era honetako aktiboek Planaren zorroaren % 10 baino gehiago osatu gabe.

Era berean, agerikoak diren edo likido egin daitezkeen **kreditu erakundeen gordailuetan** inbertitu ahal izango da, 12 hilabete baino gehiagokoa ez den mugaegunarekin, baldin eta kreditu-erakundeak Europar Batasuneko estatu kide batean badu bere egoitza eta kaudimen-baldintzari dagokionean era honetako erakundeetarako araudi espezifikoa betetzen duen kreditu-erakundea bada.

Errenta aldakor kotizatuan egiten den inbertsioa ELGAko merkatu antolatuetan kotizatutako balioetan gauzatuko da. Inbertsio handiena kapitalizazio handiko akzioetan edo dagokien merkatuen indize ordezkatzailen barnean daudenetan egingo da.

Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, akzio ez kotizatuetan eta beste era bateko inbertsio bideetan egiten diren inbertsioak tipologiaren, aktiboaren gainean izan ditzaketen gehieneko inbertsioen eta, une bakoitzean indarrean dauden gainerako legezko baldintzen arabera izango dira.

Erakundeetan integraturiko plan desberdinek eragiketarako egin ahal izango dituzte deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako **finantza-tresna deribatuekin**, estaldura- eta inbertsio-

helburuak betetzeko. Deribatuekin inbertsio-helburuarekin egiten diren eragiketetan azpiko aski likidoak eta indize orokorrak edo kapitalizazio handiko balioak edo bolumen handiko jaulkipenak adierazten dituztenak beharko dira.

Era berean, Erakundearen integratutako planek merkatu antolatuetan kontratatu gabeko finantza-tresna deribatuak erabili ahal izango dituzte, estaldura- eta inbertsio-helburuak betetzeko edo errentagarritasun-helburu zehatz bat lortzeko.

A.4 Inbertsioei lotutako arriskuak

Errenta finkoko balioen, aktibo monetarioen, kreditu-erakundearen gordailuen eta antzekoen jaulkitzaileek beharreko kreditu-kalitatea izango dute, eta horrenbestez, lehen batean txikia da inbertsio horien **kreditu-arriskua**.

Errenta Aldakorrean egindako inbertsioak inbertitutako merkatuen aldakortasunaren eragina jasan dezake; horregatik, **merkatu-arrisku** handia dauka. Erakundeak, bertan integratutako plan bakoitzaren Inbertsio-Printzipioen Adierazpenean, mugatu egingo du plan bakoitzeko ondarearen gainean gehienez ere zenbateko inbertsio ehunekoa egingo den errenta aldakorrean. Bestalde, errenta aldakorrean egiten den inbertsioa gehien bat Espainiako merkatu jarraituko akzioetan egingo da (Ibex-35ren osagaiak) eta Eurostoxx50 indizearen barneko tituluetan.

Errenta finkoko aktiboetan inbertitzeak **interes-tasaren arriskua** ekarriko du berarekin. Hala ere, Erakundearen politika denez, oro har, era horretako aktiboetako inbertsioak mugaeguna bitarte mantentzea, arrisku hori ez da handia epe luzera, baina handia izan daiteke epe laburrera.

Euroa ez diren dibisetako aktiboetan inbertitzeak **arriskua** dakar, **truke-tasen** gorabeheren ondorioz. A priori ezin da esan arrisku hori handia edo txikia izango denik, Erakundeak 2012ri begira arrisku-mota hori kendu badu ere hartan integratutako plan guztietarako.

Finantza-tresna **deribatuak** erabiltzeak eskura egindako inbertsioek ez dituzten bestelako arriskuak dituzte, **palanka-efektua** eragiten dutelako. Era berean, deribatuen merkatu antolatuetan kontratatu ez diren finantza-tresna deribatuekin egindako eragiketek arrisku gehigarriak dakartzate, esate baterako, **kontrako alderdiaren arriskua**, edo kontrako alderdiak ez betetzea.

Oro har, era guztietako inbertsioek dute **likidezia-arriskua** eta horrek eragina izan dezake Erakundearekin lotutako planen diruzaintzan, epe laburreko aktiboak gauzatzeko aukeren arabera.

Azkenik, Erakundearekin lotutako inbertsio-politiken barnean garrantzitsutzat ez hartzeagatik lehen aipatu ez diren inbertsioek hainbat arrisku izan ditzakete (araudiekin, balorazioekin, eragiketekin eta abarrekin loturik).

Arriskuen kudeaketa neurtzeko eta kontrolatzeko metodoak

Arrisku Mota	Neurketa-metodoa	Kontrol-prozedurak
Erakundearen globala	<ul style="list-style-type: none"> Ondarearen kuota-partearen balioespenaren aldakortasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Aktiboen dibertsifikazioa. Aktibo-motaren araberako mugak. Aktiboen kalitate-eskakizunak.
Kreditu-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Errenta Finkoko zorroaren kreditu-kalifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Jaulkitzaileak dibertsifikatzea. Gutxieneko kreditu-kalifikazio eskaera erosketan.
Merkatu-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Merkatu-indizeak (Ibex 35 eta Eurostxx 50) kontuan hartuta, errenta aldakorrean egindako inbertsioaren bilakaera konparatua. 	<ul style="list-style-type: none"> Desbideratzeen analisiak, merkatu-indizeei dagokienez. Errenta aldakorrean egindako gehieneko inbertsio-ehunekoaren kudeaketa aktiboa.
Interes-tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Errenta finkoko zorroaren gainbalio edo azpi-balioaren bilakaera. Errenta Finkoko zorroaren sentikortasunaren eta iraupenaren analisisa. 	<ul style="list-style-type: none"> Interes-tasen kurben bilakaerarekin egindako konparazioa. Spread edo kreditu-diferentzialen aldaketa garrantzitsuaren analisisa.
Likidezia-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Zehaztutako hileko eta urteko fluxuak (mugarik gabe), hileroko eguneratu ahal direnak. 	<ul style="list-style-type: none"> Gutxienez ondarearen % 2aren ondoriozko beharretarako estaldura gehigarria.
Truke-tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Euro-dibisa gurutzaketaren ondoriozko 	<ul style="list-style-type: none"> Estaldura-maila posibleen ezarpena, dibisaren forward

	aldaketaren analisia.	jardueren bidez.
OTC deribatuak <ul style="list-style-type: none"> Inbertsioa Estaladura 	<ul style="list-style-type: none"> Ordezkatzen duen eskura egindako inbertsio-mailaren hasierako definizioa. Espero den estaldura-eraginkortasuna aurretik mugatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ezarritako mugaren eguneko kontrola. Eraginkortasunaren eta espero den korrelazioaren hileko neurketa.
Estaldurarako OTC ez diren deribatuak	<ul style="list-style-type: none"> Espero den eraginkortasuna aurretik mugatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Kontrapartidaren balioespenaren aldearen zein eraginkortasunaren hileko neurketa.
Bestelako arriskuak	<ul style="list-style-type: none"> Inbertsioaren ezaugarriak, erregulazio-maila eta balioespen askea egiteko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> Inbertsioak dibertsifikatzea. Murriztutako pisua. Jarraipen espezifikoak.

Ezin izango dira gainditu finantza-tresna deribatuak erabiltzeko muga orokorrak, merkatu-arriskuagatik eta indarrean dagoen araudian ezarritako kontrako alderdiaren arriskuagatik. Besteak beste, deribatuetak eragiketa-multzoagatik hartutako konpromisoek ezin izango dute, inolaz ere, gainditu Planaren ondarearen balioa.

Zorroaren guztizko esposizioak, hala eskurakoetan nola deribatuetan, Plan bakoitzaren inbertsio-muga espezifikoak beteko ditu.

B. KUDEAKETA ESTRATEGIAK, ARRISKU MAILAK ETA ERRENTAGARRITASUN HELBURUAK AURREIKUSPEN PLAN BAKOITZEKO

Inbertsio Printzipioen Adierazpen honen aurreko ataletan egindako deskribapenaren arabera, Erakundeak bere planetarako duen kudeaketa-estrategiaren helburua da inbertsioen errentagarritasuna optimizatzea.

Horrenbestez, kudeaketa horren helburua denboran da “asset allocation” edo aktiboak ehuneko egokietan banatzea finantza-merkatuen jokabide-aukeren egoera ikusirik, betiere ezarritako mugen barnean eta hegazkortasun-adierazle globala eta sorturiko errentagarritasunaren aurreko arrisku globala aintzat hartuz.

B.1. Vital Pentsioa Bermatua 2019 Aurreikuspen Plana.

Bermearen hasieran Planaren zorroa osatzen duten inbertsioak (planaren bizialdian aldatu daitezke), ondoko aktibo-mota eta ehuneko-tarte hauek eratzen dituzte haren ondarearen gainean:

Errenta finko publikoa edo/eta pribatua:	% 97
Gordailuak <12 hilabete, diruzaintza eta likidezia:	% 3

Ikuspegi horretatik begiratuta, Txikitat har daiteke arrisku-maila globala, inbertsioen eta Kutxabank SAK emandako errendimendu-berme osagarriaren egituragatik.

2012ko urriaren 5etik 31ra doan epealdi bermaturako ezarritako errentagarritasun helburua % 3,50 UTB da, edozein direla ere epealdi bermatuko bitarteko denbora-tarteetan lortutako errentagarritasunak.

B.2. Vital Pentsioa Bermatua 2020 Aurreikuspen Plana.

Bermearen hasieran Planaren zorroa osatzen duten inbertsioak (planaren bizialdian aldatu daitezke), ondoko aktibo-mota eta ehuneko-tarte hauek eratzen dituzte haren ondarearen gainean:

Errenta finko publikoa edo/eta pribatua:	% 97
Gordailuak <12 hilabete, diruzaintza eta likidezia:	% 3

Ikuspegi horretatik begiratuta, Txikitzat har daiteke arrisku-maila globala, inbertsioen eta Kutxabank S.A.k emandako errendimendu-berme osagarriaren egituragatik.

2020ko martxoaren 1etik apirilaren 30era doan epealdi bermaturako ezarritako errentagarritasun helburua % 3,50 UTB da, edozein direla ere epealdi bermatuko bitarteko denbora-tarteetan lortutako errentagarritasunak.